**Seigarren urtez jarraian Itzarriko ekarpenak egin gabe jarraitzen du Jaurlaritza»** Itzarriren urteroko ohiko batzar orokorra izan zen maiatzaren 17an.Seigarren urtez jarraian ekarpenak egin gabe jarraitzen du, eta ez dirudi epe laburrean ekarpenak egiten hasteko asmorik daukanik ere. Modu honetan, Eusko Jaurlaritzak, langile publikoei aplikatutako murrizketak atzera botatzeko borondate eza eta bere langileen kontura diru publikoa aurrezten jarraitzeko asmoa erakusten du. Egoeraren larritasuna kontuan izanda, pasa den urtean ELAk bide juridikoari ekitea erabaki zuen. Apirilean, eta dagokion prozedurari jarraiki, errekurtsoa aurkeztu du beraz, EAEko Auzitegi Gorenaren aurrean.



## EAEko Irakaskuntza ez unibertsitarioan greba arrakastatsua

Martxoaren 22ko grebari jarraipena emanez, maiatzaren 16 eta 23an ere milaka langile irten ziren kalera murrizketa politikak alde batera utzi, lan-baldintzak hobetu eta pertsonen eta jendartearen garapen integrala lehentasun izango duen hezkuntza publikoa aldarrikatzera. Martxoan bezala, jarraipena oso zabala izan zen, %80ra helduz.

Hezkuntza inbertsioa, plantilak eta baliabideak handitzea eskatzen dute ELA, LAB eta Steilas sindikatuek. Onartezinak diren behin-behinekotasun mailak murriztea. Gelako ikasle kopurua murriztea. Soldatetan, ordezkapenetan, bajetan, erretiroan... ezarritako murrizketak alde batera uztea. Ikasle euskaldun eleaniztunak sortu dituen euskarazko murgiltze eredua garatzea. LOMCE eta Heziberri bertan behera uztea. Eta hezkuntzaren merkantilizazioa alde batera utziz, hezkuntza berdintasuna, justizia soziala, integrazio eta gizarte kohesioa bermatzeko oinarrizko tresna izatea.

azpimarratzen duenez ELA mobilizatzen jarraituko du zerbitzu publiko eta kalitatezko baten defentsan. "Urdulizko Ospitaleetako sukalde, ikuztegi eta garbikuntza zerbitzuen baldintza-agiria geldiarazteko agindua jaso ondoren ere, Osakidetzak zerbitzu horiek eta beste zentro batzuetakoak pribatizatzeko asmoarekin darrai. Osakidetzak, berriro ere, inolako zerbitzu berririk ez *kanporatzeko* bere konpromisoa urratuko du honela".

## Las residencias municipales de Bizkaia, en riesgo de privatización

ELA ha solicitado diversas reuniones con Diputación y EUDEL -sin respuesta, hasta el momento- ante la eventualidad y riesgo de privatización de las residencias municipales de Bizkaia por la Ley de Servicios Sociales.

Aunque el Convenio del sector, Udalhitz, limita la interinidad al 6%, de media, supera el 60% en las diferentes residencias. Además, las jornadas parciales y contratos de horas están a la orden del día. ELA también ha detectado la inaplicación del convenio por parte de algunos de los ayuntamientos.

En Bizkaia hay 13 residencias de titularidad municipal con unos 500 trabajadores/as. En 4 de ellas ya no hay personal propio, sino que los gestionan empresas privadas.

## EAJ-PP akordioak zilegitasunik gabe utzi du Funtzio Publikoko sailburuordea

Eusko Jaurlaritzako Funtzio Publikoko sailburuordeak –Andres Ziarretak– dimisioa aurkeztu behar du edo kargugabetu behar dute, aurrekontu-akordioa berak agertutako posiziotik beste muturrean baitago, Eusko Jaurlaritzaren plantillak egonkortzeari dagokionez. Espainiako Gobernuak eta CCOO, UGT eta C-SIF sindikatuek, Eusko Jaurlaritzak bere plantilla egonkoratzeko duen ahalmena mugatzea adostu adostu dute besteak beste.

Madrilgo akordioa Estatuko Aurrekontu Orokorraren Legearen bidez berretsi behar da; aldaketak egin daitezke, beraz, Zearreta sailburuordeak adierazitakoaren ildotik. Hala ere, EAJk eta PPk adosturiko 36 puntuen artean ez dago gai honi lotutako bakar bat ere.

# “La gente ha elegido ELA por su independencia política y económica”

## ELA IRRUMPE EN EL COMITÉ DE EMPRESA DE GUARDIAN INDUSTRIES NAVARRA DE TUDELA Y LOGRA 8 DE 13 DELEGADOS/AS



**Ubaldo Sola (izda) junto a los delegados de Guardian Industries Navarra.**

› **GORKA QUEVEDO**

**Guardian Industries Navarra es una empresa situada en Tudela** dedicada a la fabricación de vidrio plano para interior y exterior de edificios. Es una de las principales empresas de la Ribera, en la que actualmente trabajan 300 trabajadores y trabajadoras. En abril, ELA concurrió a las elecciones sindicales y el resultado fue espectacular: 8 de los 13 representantes sindicales que se elegían, pese a presentarse sólamente en el colegio de especialistas. Con un total de 167 votos –frente a los 25 que logró la candidatura independiente– ELA obtuvo 8 de los 9 delegados/as.

Un gran resultado. Sobre todo, teniendo en cuenta que ELA se presentaba por primera vez en Guardian Industries Navarra. Ubaldo Sola, responsable de la federación Industria eta Eraikuntza en la Ribera, destaca que el trabajo realizado durante largos años por ELA ha sido la clave para esta fuerte irrupción. “Hasta ahora había dos comités de empresa, formados por 9 representantes cada uno, y todos los delegados/as sindicales eran de una candidatura independiente hecha a la medida de la dirección. La situación en la empresa era muy grave. Los últimos 14 años sólo se han firmado dos convenios. Cada convenio era peor que el anterior y suponía una pérdida de derechos. La merma en temas como salarios o jornada era muy evidente”.

**Ganas de cambiar la situación.** La insistencia de ELA de trabajar en la empresa y sacar candidatura –unido al hartazgo con un sindicalismo “independiente” que estaba al servicio de la dirección– propiciaron que en abril nuestro sindicato se presentara por primera vez a las elecciones sindicales. “La plantilla tenía muchas ganas de cambiar la situación, y nuestra candidatura generó una gran ilusión desde el primer momento. No hay más que ver los resultados obtenidos. La plantilla estaba harta de su situación, y el hecho de que se presentara una candidatura como la ELA, independiente tanto políticamente como económicamente, hizo que todo fuera más fácil”.

### INOIZKO ORDEZKARITZARIK HANDIENA ERRIBERAN

Tuterako Guardian Industries Navarran lortutako emaitza bikainak agerian utzi du beste behin ELA Erriberan egiten ari den lan bikaina. Ubaldo Solaren iritziz hau bezalako emaitzek indartu egiten dute gure eredu sindikala eta orain arte egindako lana. “Azken urteetan hazi egin da gure ordezkaritza Erriberan, %21,28an gaude egun. Guardianen gertatu denak erakusten digu antolakuntza ezinbestekoa dela gobernu ezberdinen lan-erreformei aurre egiteko. Gaur egun ELA da Erriberan dagoen kontra-botere alternatiba sindikal bakarra. Jendearen arazoetatik gertu egotea eta horiei aurre egiteko zintzotasuna dira ordezkaritzan izan dugun hazkundea ulertzeko gakoak”.

“Hay otro detalle –añade Ubaldo Sola– muy importante y que ha sido fundamental: el magnífico trabajo realizado por la sección sindical de ELA en Guardian Llodio durante más de 25 años. En Guardian Llodio, ELA cuenta con una amplia mayoría en el comité -8 de 13 delegados/as- y los resultados son manifiestamente mejores que en Tudela. Si analizas el último convenio firmado recientemente por ELA en la planta de Laudio, las condiciones salariales son mejores, la jornada laboral es muy inferior, la plantilla está protegida contra la reforma, los complementos por Incapacidad Temporal son del 100%...”

**Ahora es tiempo de trabajar.** Tanto la sección sindical como la plantilla de Guardian Industries Navarra son plenamente conscientes del reto que tienen por delante. “Tenemos muchos retos, pero el principal es organizarnos sindicalmente y trabajar con la plantilla, recogiendo sus principales inquietudes para renovar el actual convenio de empresa y lograr otro nuevo que mejore las condiciones laborales y nos blinde contra la reforma laboral”.

**EKOLOGIA**
**MEDIO AMBIENTE**

# Atlas de la justicia medioambiental

ESTE ATLAS DOCUMENTA, CATALOGA Y VISIBILIZA LAS HISTORIAS DE COMUNIDADES QUE, EN TODO EL MUNDO, LUCHAN POR LA JUSTICIA MEDIO AMBIENTAL




› **NORA ONAINDIA**

**Durante el Coloquio internacional "El futuro de la alimentación y retos de la agricultura para el siglo XXI"** celebrado en Gasteiz los días 24, 25 y 26 de abril, el profesor de la Universidad Autónoma de Barcelona Joan Martínez Alier presentó el Atlas de la Justicia Medio Ambiental (https://ejatlas.org/). Este atlas documenta, cataloga y visibiliza las historias de comunidades que, en todo el mundo, luchan por la justicia medio ambiental. Su objetivo es hacer que la movilización se haga más visible, señalar las demandas y testimonios, así como sentar precedentes para hacer responsables a las compañías y a los Estados de los impactos socio-ambientales de los que son causa.

Esa socialización de las luchas es fundamental porque en multitud de ocasiones se ocultan a la ciudadanía que consume los productos finales.

**¿Qué se entiende por conflicto socio-ambiental?** Ya en el informe de Ekopol, "La Y vasca: Un callejón sin salida" se mencionaba que para que un conflicto socio-ambiental tenga lugar deben darse, de un lado, ausencia de información y transparencia sobre los proyectos", y de otro, inexistencia de mecanismos reales de participación para decidir colectivamente sobre ellos.

Por su parte, los creadores de la web entienden que los conflictos socio-ambientales a menudo aparecen como consecuencia de desigualdades estructurales de ingresos y de poder. Un ejemplo de esto serían las políticas de exportación de residuos tóxicos a las que los países del norte recurren. Otra cuestión importante son las diferencias abismales en términos de contaminación per cápita. La emisión media por persona de CO2 en EEUU es 15 veces mayor que en la India, en lo que podría denominarse un enorme conflicto ecológico distributivo.

En esa línea, vemos también cómo se están expandiendo las fronteras de donde se extraen las materias primas, mediante proyectos que llegan a lugares hasta ahora inaccesibles para el hombre como es el Ártico, el Mar Muerto,...

El acceso a la justicia de las comunidades que sufren los impactos medioambientales suele ser muy difícil puesto que muchas transnacionales operan en esos Estados por medio de filiales, en lo que podríamos llamar una arquitectura de la impunidad.

**Helburua mobilizazioa ikusgarriago egitea da, eskakizunak eta testigantzak azpimarratzea, eta baita bidea urratzea ere konpainiei eta estatuei erantzukizunak egozteko**

**Kasuen %18etan komunitateek legeak negoziatzea eta aldatzea lortu dute, eta horrela emaitza bidezkoagoak eskuratu dituzte**

**Instrumento para crear alianzas.** Pese a esa perspectiva tan poco optimista, gracias a esta aplicación se da también visibilidad a las comunidades que logran sentarse a la mesa de negociación, cambiando las leyes para contribuir a cambios institucionales que conllevan resultados más justos. Según la web, esto se da en un 18% de los casos.

Vemos lo útil que es este Atlas para ayudarnos a entender el gran conjunto de factores que tienen que ver con los conflictos cuyo escenario principal es el medio ambiente. Tanto los conflictos de este tipo que se dan en nuestro territorio (en la web aparecen casos como la Y vasca, el "Tren de Altas Prestaciones" de Nafarroa, la central nuclear de Garoña,...) como los puntos coincidentes en los conflictos que están ocurriendo en otros lugares del mundo. Lo cual, puede resultar una información muy valiosa, también para crear alianzas.

Desde ELA vemos la socialización de los conflictos ambientales como una oportunidad de poner el foco en la impunidad con la que a veces se saldan muchos de ellos y así dar un paso más en la lucha hacia un mecanismo internacional vinculante, como es el Tratado Internacional de los Pueblos para el control de las empresas transnacionales.

## DESDE IPARRALDE
## IPARRALDETIK

# Presidente bozak

BIZI! FAXISMOAREN ETA DIRUAREN ERREINUAREN KONTRA ATERA ZEN KALERA BAIONAN EGIN ZUEN MAIATZAREN LEHEN JENDETSUAN



› XABIER HARLUXET

**Ipar Euskal Herrian, Frantses Estatuko Presidente hauteskundeetarako** 2. itzulian bozkatu dutenen %76,52ak Emmanuel Macron hautagaiarentzat egin du, %23,48ak Marine Le Pen-entzat. Estatu mailan, muga gabeko garapenaren aldeko politika neoliberalaren sustatzaileak botzen %66a lortu du eta eskuin muturrak %34a. Jarraian atzemanen duzuen Bizi! mugimenduaren hausnarketak argi uzten ditu zein izanen diren datozen 5 urteen erronkak.

**Faxismoaren kontra...** Bizi!k konduan hartu ditu Frantses Estatuko Presidente hauteskundeetako lehen itzuliko emaitzak. Front National alderdia, lehen itzulian berean ikusterat botzen %21,43a lortzen, mugimendu altermundialistarentzat izigarri kezkagarria da. Europar Batasuneko hamar bat herritan lehen alderdia den eskuin muturraren igotze hau etengabe behar dela borrokatu azpimarratzen du Bizi!k.

Ber maneran, ulertuz ere zein diren igotze honen arrazoinak: bazterrera uzte eta bakardade sentimendua; gero eta gehiago anti-sozialak; zuzengabeak eta desberdintasun sortzaileak diren politiken kontrako sumindura; politika eta hedabideak aberatsenen eta boteretsuenen zerbitzurat ezartzerat...Europa, demokrazia, berdintasun, elkartasun eta anaitasun idealak, horrelako politiken golpe errepikatuen pean hiltzen ari direla argi da Bizi!rentzat. Azken hauek ere, mehatxatzen dituzte gure planetaren oreka ekologiko eta klimatikoak, eta, urtero kaltetzen dituzte gero eta gehiago, jendarteen molde gizatiarrean bizitzeko baldintzak Amalurran.

**... eta diruaren erreinuaren kontra ...** Emmanuel Macron suntsitzailea den politika honen ordezkaririk karikaturazkoena dela ere erran du justizia klimatikoaren aldeko mugimenduak: muga gabeko garapena, edozoin izanikan ere horrek sortzen dituen xehatze sozial eta ekologikoa; behar gabeko proiektu erraldoi eta inposatua; lana igandekari; CETA (Merkataritza eta inbertsio ituna); bide-garraioak; langileriaren gizarte abantailen eta lan zuzenbidearen  xuntsitzea; nagusi handiei, deusen truk eginak diren opariak, CICE bezala; behargabeak eta hondagarriak; gure jendarteen Uber-izazioa... hauexek dira Errepublikako datorren Lehendakariak bultzatzen dituen balore eta politikak.

Macron jaunak desiratzen du gazteek miliardunak bilakatzeko ametsa ukan dezaten solidarioak izaiteko ametsaren ordez. Macron-ek bultzatu dituen politikak eta gaur egun oraino defenditzen dituen politikak, Fronte Nazionalaren etengabeko igotzearen lurrustela dira. Ber denboran, politika horiek nahasmendu klimatikoa eta bioaniztasunaren erortzea larriagotzen eta bizkortzen dituzte, Bizi!ren erranetan.

**Es imprescindible luchar contra el fascismo del Frente Nacional y contra las políticas capitalistas de Macrom**

**En Iparralde se ha construido una alternativa de solidaridad con los excluidos, con la naturaleza y las generaciones futuras, refugiados...**

**Gure alternatiba: elkartasuna!**
Ez da etsimenduaren tenorea. Presidente hauteskundeen bi itzulien artean, Bizi!k ia 600 pertsona bildu ditu, Maiatzaren Leheneko manifestaldiko jende lerro koloretsu eta handienean. Euripean, desfilatu genuen *faxismoaren eta diruaren erreinuaren kontra* Bizi! mugimendu altermundialistak deiturik, Baionako karriketan Maiatzaren Leheneko usaiako desfilearen karietara.  Elkartasuna, banderoletan, lemetan bezainbat agertu den lema izan da. Mobilizazio mezu premiatsu gisa agerian zen. Elkartasuna baztertuekin, diskriminatuekin, nekezian direnekin, ahots gabekoekin, natura eta geroko belaunaldiekin, eta molde bereziki azpimarratu batean errefuxiatuekin.

**Iparraldean dinamika sozial eta herrikoi bat.** Bururatzeko, Bizi! ohartzen da Fronte Nazionalak, Ipar Euskal Herrian, bakarrik bozen %12a lortu duela eta bigarren itzulian ere Estatu mailan baino emaitza apalagoak ukan dituela. Lurralde honetan bada dinamika sozial eta herrikoi bat, sistema nagusiari eta haren politika suntsitzaileei alternatiben eraikitzeko eta komunitate ireki eta babesle baten sortzeko. Iparraldean bada lurralde eta nortasun kolektibo bati kidetasun sentimendu baten eta atxikimenduaren adierazteko molde solidario bat, perspektiba aurrerakoian.

Praktika horiek saihesten dute bertan faxismoaren aintzinatzea beste eskualdeen heinekoa izan dadin. Hori izan dadila mundu ekologista eta aurrerazalearen inspirazio iturri, boterean direlarik dena suntsitzen duten eskuin mutur honi eta diruaren erlijioari beharrezkoa den alternatibaren berreraikitzeko momentoan.

LEGEAREN BUELTAK
PAGINAS JURIDICAS

# Hitzarmenetik kanpo dauden langileak

BALDINTZAK BAKARKA NEGOZIATZEN DITUZTEN LANGILEEK EZ DUTE DEFENTSA KOLEKTIBORIK



› HAIMAR KORTABARRIA

**Enpresa askotan badira lan hitzarmenetik kanpo geratzen diren langile batzuk.** Hitzarmenaren aplikazio eremu pertsonaletik at egoteko arrazoi desberdinak izan daitezke. Kasu askotan, ordea, langile horien artean ezaugarri komuna bilatzen hasita enpresariaren eta langile hauen arteko konfiantza harremanaz hitz egin beharko genuke. Alabaina, ez gara edozein konfiantza harremanez ari, Auzitegi Gorenaren doktrinak ezarritakoaren arabera. Doktrina honek ezarri duenez, langile bat lan-hitzarmenetik kanpo egon ahal izateko benetan norabide bikoitzean jarduten duen konfiantza harremana izan behar du enpresariarekin. Ez da aski langileak bere funtzioetan erantzukizun gehiago izatea, horrekin batera langileak ez badu erabakitzeko gaitasun gehiago bereganatzen, bai lanaren antolaketan, bai lanorduen antolaketan eta baita –eta hau erabakigarria da konfiantza harreman hori definitzeko orduan- bere lan baldintzak negoziatzerako orduan.

Azken hau da, arlo sindikalari dagokionean, interes handiena duena. Lan-harremanak indar-harremanak dira eta horrek konfiantzaren eta menpekotasunaren arteko soka fina alderik ahulenetik hausteko aukerak nabarmen areagotzen ditu. Ez da ahaztu behar bere baldintzak bakarka negoziatzen dituzten langileek ez dutela defentsa kolektiborik, eta arazorik izatekotan hori dela langileek duten babeserako tresna eraginkorrenetariko bat, eraginkorrena ez bada.

Babes kolektibo horren emaitza dira hain zuzen ere lan-hitzarmenak. Konstituzioak negoziazio kolektiborako eskubidea onartzen du, eta horren ondorio da eurek negoziatutakoa lotesle izatea hitzarmena negoziatu den eremuan. Hitzarmenaren eremu pertsonala, lurralde eremua eta denbora eremua autonomiaz erabaki dezakete langileen eta enpresarien ordezkariek.

**Mugak.** Lan-hitzarmenaren eremu pertsonalari –nori aplikatuko zaionburuzko erabaki horrek, ordea, Auzitegi Gorenaren doktrinak ezarritako muga batzuk errespetatu behar ditu: alderdiek ez dute askatasun osoa, berdintasun eta diskriminazio ezaren printzipioak errespetatzea nahitaezkoa delako.

Berdintasun printzipioa aplikatzeak ez du derrigor esan nahi negoziazio unitate horrek enpresako langile guztiak barneratu behar dituenik, ez eta langile batzuek euren baldintzak aparte negoziatu ezin ditzaketenik. Euren lan baldintzak hitzarmenetik kanpo negoziatzea aukeratzen duten langile hauek ezin dira nahastu, ordea, negoziaziorako gaitasunik izan ez eta euren borondatearen aurka hitzarmenaren aplikazio eremutik at geratzen diren langileekin. Halako bazterketak, Auzitegi Gorenaren arabera, baldintza berezi batzuetan soilik eman daitezke: goi karguen kasuan, herrialde bateko segurtasun nagusiaren kasuan... ez da onartu, ordea, erantzukizun postuetan egote hutsagatik hitzarmenetik kanpo uztea, aurretik definitu dugun norabide bikoitzeko konfiantza harremanik ez badago.

Arazoa, beraz, ez da emango langile bat edo batzuk hitzarmenetik kanpo askatasunez hartutako erabakiaren ondorioz geratzen badira. Arazoa egoera hori langileen borondatetik kanpo gertatzen bada emango da, langile horiek euren kasa negoziatzeko gaitasunik izan ezean menpekotasun egoera batera kondenatuak geratuko liratekeelako.

**Son varios los motivos por los que un/a trabajador/a puede quedar fuera del ámbito de aplicación personal de un convenio colectivo. En ocasiones, se trata de personal de confianza de la empresa. Según doctrina del TS, deben tratarse de puestos en los que la confianza se manifieste en sentido bidireccional, y por ello no solo con la exigencia de una mayor responsabilidad del trabajador en sus funciones, sino también con una mayor capacidad de decisión por parte de éste.**

**Las partes gozan de autonomía para determinar el ámbito de aplicación del convenio. Sin embargo, esa libertad se encuentra sujeta a determinados límites, principalmente el de respeto al principio de igualdad y de no discriminación. La exclusión forzosa de trabajadores del ámbito de aplicación del convenio requiere que se base en singulares características (altos cargos, trabajadores/as con relaciones laborales específicas...).**

LLEVA MÁS DE UN AÑO PAGANDO A LAS EMPRESAS ADJUDICATARIAS POR UN SERVICIO QUE NO HAN OFRECIDO Y PRESIONANDO AL GOBIERNO VASCO PARA INCREMENTAR LOS YA EXCESIVOS SERVICIOS MÍNIMOS IMPUESTOS

# ELA demanda a la Diputación por vulneración del derecho fundamental de huelga y libertad sindical en el conflicto de las Residencias de Bizkaia

**› ERREDAKZIOA**



**ELA presentó el 12 de mayo ante el Juzgado de lo Social de Bilbao una demanda contra la Diputación Foral de Bizkaia en materia de tutela de derechos fundamentales** por vulneración del derecho a la huelga y a la libertad sindical en el conflito que protagonizan las trabajadora de las Residencias de Bizkaia. Esther Saavedra, abogada y responsable del sector público en este territorio, explica las razones de la misma.

**-¿Por qué ELA entiende que la Diputación está vulnerando el derecho de huelga de las trabajadoras de las Residencias?**

-Esta demanda está motivada por el hecho de que la DFB, desde que empezó el conflicto, ha venido abonando a las empresas-residencias la totalidad de las cantidades que se derivan de los pliegos de concertación suscritos, a pesar de que parte de ese servicio concertado no ha sido prestado debido la huelga que mantienen gran parte de las trabajadoras del sector.

El proceder de la DFB ha supuesto una evidente, clara y real merma de efectividad de la huelga, al haber abortado, con mayor o menor intensidad, la capacidad de presión que resulta inherente al ejercicio de la misma, lo que supone, de facto, la vulneración del derecho de huelga y de libertad sindical, al vaciar su contenido esencial.

**-Tras un año de huelgas, las empresas siguen sin soportar las consecuencias propias de una huelga, lo que explica, sin duda el artificial alargamiento del conflicto.**

-¿Qué necesidad tienen de negociar las residencias si la huelga no les supone una pérdida económica? Sin duda, esta decisión de la DFB ha resultado disuasoria de cara a la negociación con la parte social, circunstancia que influye en la duración de la huelga y rompe la proporcionalidad de los sacrificios de las partes en conflicto, ya que se ha favorecido de manera directa a una de ellas, la empresarial.

**-Desde el inicio del conflicto, la Diputación ha rechazado su responsabilidad en la solución del mismo pero se ha convertido en juez y parte del mismo.**

-Es claro que su actuación está determinando el desarrollo del conflicto. Paralelamente al abono de las cantidades a las empresas, la DFB ha centrado todos sus esfuerzos en neutralizar la huelga e invisibilizar la grave situación del sector. Ha reforzado las inspecciones en las residencias respecto al cumplimiento de los servicios mínimos, a la vez que ha utilizado todos los medios a su alcance para el incremento de los mismos. Misivas al Gobierno Vasco sobre servicios mínimos, impugnación judicial de servicios mínimos decretados, comentarios sobre la finalidad de la huelga… Está propiciando, en mayor o menor medida, un efecto neutralizador del legítimo ejercicio del derecho a la huelga que no podemos dejar de denunciar, públicamente y ahora en los juzgados.

**-En su día, la propia DFB reconoció -tras diferentes denuncias sindicales, de usuarios y familiares- que estos pagos son indebidos y que no existía obligación legal de continuar haciéndolos…**

-Sí, y también anunció que iba a reclamar las cantidades indebidamente abonadas… pero la única realidad a día de hoy es que durante más de un año las empresas han presentado una factura mensual por un servicio que no han ofrecido y la Diputación ha abonado las cantidades de manera íntegra.

Según datos de ELA, las empresas titulares de las residencias no sólo no han visto mermado en forma alguna su patrimonio durante la huelga sino que sus beneficios se han visto incrementados en más de 5 millones de euros.

**-Llama la atención que la denunciada por vulnerar el derecho de huelga y la libertad sindical de las trabajadoras no sea la empresa directa sino la contratista…**

-Los derechos fundamentales de un trabajador o trabajadora pueden ser vulnerados por quien no es su empresario en la relación laboral pero interviene o interactúa con él en conexión directa con la relación laboral, como es el caso. De todas maneras, también hemos co-demandado a las patronales GESCA, LARES Y ELBE, que negocian el convenio.

**-ELA denuncia que la Diputación ha hecho cualquier cosa menos implicarse en que el conflicto se resuelva.**

-En este sentido, recordar que hasta el propio Gobierno Vasco ha señalado -en un escrito de oposición a la solicitud de la Diputación de incrementar los abusivos servicios mínimos establecidos- que "las carencias de personal en las residencias de Bizkaia son estructurales, que la plantilla es insuficiente para atender con dignidad a las personas dependientes y que el problema no se solventa limitando aún más el derecho de huelga"… No se puede hacer depender del sacrificio diario de las trabajadoras un servicio, sin embargo, la Diputación sigue sin querer abordar esta demanda básica.

**-ELA entiende que la conducta lesiva de la DFB debe conllevar una condena por daños económicos y morales.**

-Así es. Pero, además de la responsabilidad legal que ahora le exigimos, entendemos que la Diputación Foral de Bizkaia debe responder pública y políticamente por uso indebido de dinero público y por una posible sentencia a nuestro favor, esperamos.

GIZARTE EREDUA
POLÍTICA SOCIAL

# El debate de las pensiones es parte del modelo de sociedad

LA PENSIÓN MEDIA EN NAVARRA FUE DE 1.034 EUROS EN 2016, ALGO MENOS QUE LOS 1.120 EUROS DE LA CAPV. LAS PERSONAS PENSIONISTAS ALCANZAN EL 25% DEL TOTAL DE LA POBLACIÓN



› MIKEL NOVAL

**En Hego Euskal Herria, 670.000 personas perciben mensualmente una pensión.** De este modo, las personas pensionistas alcanzan el 25% del total de la población. Una de cada tres personas que percibe ingresos (salario, autónomos, prestaciones por desempleo, prestaciones sociales,...) es pensionista.

El debate sobre las pensiones tiene que centrarse en la cuestión de fondo, que no es otra que determinar qué nivel de ingresos queremos garantizar a las personas pensionistas y cómo se van a financiar las pensiones.

Es cierto que las pensiones en nuestro país son más elevadas que las de España. Pero eso no significa que las pensiones alcancen un nivel adecuado. Al contrario. La realidad es que la pensión media en Navarra fue en 2016 de 1.034 euros, algo menos que los 1.120 euros de la pensión media en la CAPV. Una media baja, que oculta la grave situación de cientos de miles de pensiones que están por debajo de los 700 euros, especialmente las de las mujeres.

**Al pago de las pensiones se destina el 11,9% del PIB vasco, por debajo de la media europea** (12,9%, ó 13,5% en la zona euro), y también por debajo de la media española (12,8% del PIB). Que el 25% de la población reciba menos del 12% de la riqueza es una muestra de desigualdad y de las políticas de empobrecimiento de la población.

En las últimas décadas se han sucedido las reformas o rebajas de pensiones. Se han adoptado todo tipo de medidas encaminadas a reducir la cuantía de las nuevas pensiones, se ha retrasado la edad de jubilación y se ha decidido que las pensiones pierdan poder adquisitivo, revalorizándose muy por debajo del IPC (un 0,25%, como ha ocurrido este año en la aprobación de presupuestos del estado).

Para justificar estas medidas y eludir el debate de fondo, se plantea la cuestión de las pensiones como un debate técnico (que si hay que cotizar 35, 37 o 40 años para llegar al 100% de la pensión; que si hay que reducir un determinado porcentaje u otro la pensión por cada año que una persona se jubile anticipadamente,...), cuando en realidad se trata de un debate de modelo de sociedad, de solidaridad, de reparto.

**Nafarroako batez besteko pentsioa 1.034 eurokoa izan da 2016an, EAEko 1.120 euroko pentsioa baino apur bat txikiagoa**

**ELAk 1.080 euroko gutxieneko pentsioa eskatzen du, eta horrekin batera pentsioen gaineko erabakiak eta kudeaketa Euskal Herrian hartzea ere**

El gobierno de Rajoy ha anunciado que se van a producir nuevas reformas, y todas tienen un objetivo: nuevos retrocesos en los derechos sociales, empobrecer a una parte cada vez mayor de la población, eludiendo el debate sobre dónde va a parar la riqueza que existe y que va a existir en el futuro.

**Propuestas de ELA.** Por ello, ELA tiene claro que hay que politizar el debate, abrirlo a la sociedad, con propuestas claras:

- Dar marcha atrás en los recortes aprobados en los últimos años.
- Garantizar el poder adquisitivo de las pensiones.
- Pensión mínima de 1.080 euros.
- Eliminar las bonificaciones empresariales en las cotizaciones sociales.
- Aumentar el poder adquisitivo de los salarios, y el nivel de empleo de calidad.
- Que las decisiones y la gestión sobre las pensiones se tomen en Euskal Herria.

Tener un nivel digno de pensiones es posible. Solo hace falta voluntad política para ello.

HEGO EUSKAL HERRIAN DAGOEN ZERGA-BILKETA EZ DA BIDEZKOA; LANGILEENGAN OINARRITZEN DA, ETA KAPITAL ERRENTEK IA EZ DUTE ZERGARIK ORDAINTZEN

# Fiskalitateari buruz hitz egin nahi eza

**› IÑAKI SALABERRI**

**Ongizate estatua mantendu eta hobetzeko, beste hainbat neurriren artean, diru-sarrerak bermatu, hobeto erabili eta handitu behar dira.** Baina, azken urteotan, diru-sarrera publikoak txikiagotu egin dira eta, horiek handitzeko bideak bilatu baino, gobernuek gastu publikoa murriztu egin dute. Ordea, gizartearen beharrak gutxitu beharrean hazi egin dira. Hortaz, ongizate gizartearen eraispena jazotzen ari da, gero eta estaldura zein zerbitzu publiko apalagoak ematen baititu.

Baina, hori al da dagoen aukera bakarra? Politikari eta komunikabide gehienen errepikapenengatik askotan hori badirudi ere, erantzuna ezezkoa da: ongizate sistema hobetu eta areagotu egin daiteke, horretarako diru-sarrerak handituz.

Ez hori bakarrik, diru-sarrerak handitzeak ez du zertan esan nahi zerga guztiak igo behar direnik: egin daiteke zerga-sistemaren birplanteamendua, diru-bilketa handitzeaz gain norbanako bakoitzak ordaintzen dituen zergetan eraldaketa burutuz. Besteak beste, kontsumoaren gaineko zerga (BEZ) txikiagotu eta enpresen irabazien gainekoak handitu daitezke; edo lanerrenta altuenen PFEZ areagotu eta baxuenena txikiagotu; edo energiaren gainekoak gutxituz eta aberatsenak areagotuz; eta abar.

Soilik zerga-bilketari erreparatuz, 2016an historiako PFEZ kopuru handiena bildu zen EAEn (2007an baino %8,6 gehiago, orduan baino langabezia maila askoz ere handiagoa badago ere). Ez aldiz diru-bilketa osoari dagokionez (2007ko mailatik urruti geratu zen), ezta sozietate zergari dagokionez ere (2007koaren erdia bildu zen), besteak beste.




Honek esan nahi du langile gutxiago badago ere, lan egiten dutenek gero eta zerga gehiago ordaintzen dituztela (PFEZaren %95 lan errenten atxikipenak baitira). Aldiz, kapital errentek ia ez dute zergarik ordaintzen (horien eta abarren gaineko atxikipenak PFEZaren %5 soil-soilik baitira) eta enpresen mozkinek gero eta zerga gutxiago ordaintzen dituzte.

## SIN NOTICIAS DE UN VERDADERO DEBATE FISCAL

**En los últimos años ha disminuido la recaudación y, en vez de buscar vías para incrementarla, los gobiernos se han centrado en recortar el gasto público. Esto se ha traducido en un desmantelamiento del estado de bienestar.**

**La clase trabajadora aporta más que nunca pese al elevado nivel de desempleo, mientras que las rentas altas del capital aportan entre poco y nada, y el impuesto de sociedades se encuentra en mínimos.**

**Quienes apenas pagan y quienes hacen una aportación ínfima con respecto a la enorme capacidad que tienen, dicen estar ahogados por los impuestos y trasladan la responsabilidad de financiar el estado de bienestar a la mayoría de la sociedad, que ya aporta la mayoría de los ingresos públicos, y que son personas trabajadoras y autónomas, y pequeñas y medianas empresas.**

**Hay muchas formas de distribuir el peso de la fiscalidad entre las personas, los tipos de rentas, el consumo, la actividad... Al fin y al cabo, la decisión última depende de la ideología de cada persona.**

**Debemos sacar la discusión sobre fiscalidad del ámbito técnico para llevarlo a la sociedad: ya que todas las personas pagamos impuestos, todas tenemos derecho a opinar. ¡Paguemos los impuestos de forma justa y equitativa!**

**Beraz, aukerak egon badaude.** Era batera ekin edo bestera, bakoitzaren nahi eta ideologiaren araberakoa da. Hori dela eta, zergatik ez dira gauzak era errazean planteatzen? Nolatan ez zaio gizarteari erabakitzeko ahalmena eskaintzen? Eta zergatik ez dira eztabaida horiek plazaratzen?

Erantzuna xumea da: ezer ez eta gutxi ordaintzen dutenek bere horretan jarraitu nahi dutelako, nahiz eta ekarpen askoz ere handiagoak egin ditzaketen. Gainera, bide batez, zergekin itota bizi direla aitzakia bilakatzen dute; horrela gizartearen gehiengoari egokitzen digute ekarpen handiena egiteko erantzukizuna: langile, autonomo eta enpresa txiki eta ertainei hain zuzen.

Baina hori ez da bidezkoa. Bakoitzak duen ahalmen eta beharren arabera egin behar du bere ekarpena, bidezko era garden batean. Denok ordaintzen ditugunez zergak eta horien bidez denona den ongizate estatua finantzatzen denez, denok dugu zilegitasuna zergei buruz hitz egin eta erabakitzeko.

Segi dezagun fiskalitatea alor teknikotik ateratzen eztabaida politikoa bihurtuz eta gizarte osoaren eskuetara zabalduz. Zergak denok ordaintzen ditugu eta denon betebeharra da ordaintzea; baina egin dezagun era ekitatibo eta justuan!

HILEKO KRONIKA
CRÓNICA DEL MES




# Afiliazioa da gakoa

› GORKA QUEVEDO

**ELAk 98.960 afiliatu ditu.** Afiliatu horiek hilero-hilero kuota bat ordaintzen dute. Kuota horren %25a zuzenean greba kutxara doa, sindikatuko estatutuek ezartzen duten bezala. Kuotaren gainontzeko kopurua sindikatuaren egitura eta ekintza sindikala ordaintzera bideratzen da. Baliabide propio guzti hauek ELAren aurrekontu ia osoa suposatzen dute, %94,44a. Gainontzeko diru-sarrerak –aurrekontu osoaren %6a baina gutxiago– ELAk daukan ordezkaritza-mailagatik jasotzen dituen diru-laguntzek betetzen dute ia bere osotasunean. Gainera, ELAk ez du ez krediturik, ez mailegurik. Ez dio inori ezer zor. Eta gainera auto-finantzatu egiten da.

Hori da ELAren misterio guztia. Sindikatuko milaka afiliatuek ordaintzen dituzten kuotek askatasun osoa ematen diote ELAri, autonomia ekonomikoa eta politikoa libreki hartutako erabakiak gauzatzeko. Erraza da ulertzeko, ez?

Afiliazioaren datua maiatzaren 9an eman zuen ELAk, Kongresu Konfederala dagoen bakoitzean egiten duen legez. Baten batek esango du beste sindikatu, alderdi politiko edo eragile sozial batzuk ere ematen dituztela datu hauek. Baina badago ezberdintasun nabarmen bat: ELAk bere datuak publikoa den auditoria batean frogatzen ditu. Hau da, ELAk maiatzaren 9an publikoki frogatu zuen gaur eta orain 98.960 afiliatu dituela. Ingurura begiratuta ELAk harro esan dezake beste inork ez duela hori egiten.

Ez da kopuru makala 98.960 afiliatu izatea. Baina ez da nahikoa. Inondik inora. Gehiago behar dira sindikatu indartsuago bat izateko. Euskal Herriak eta bere langile-klaseak hamaika erronka ditu etorkizunari begira, eta aurrean dituen arerioak ez dira makalak. Horregatik ELA indarberritu beharra dago. Ekainaren 15 eta 16an Bilbon egingo den XIV. Kongresu Konfederalak horretarako aukera eman beharko luke, sindikatua indarberritu eta etorkizu nari begira jartzeko. Indarberritzeko ordua da.

**El 'misterio' de ELA es muy simple: tiene 98.960 afiliados/as que pagan una cuota mensual que se destina en su integridad a este proyecto sindical y a la clase-trabajadora que defiende**

**La donación de la Fundación Amancio Ortega a Osakidetza es colonialismo filantrópico, es decir, hacer una pequeña donación –insignificante para todo el dinero que tiene– para que este sistema que le permite ser un supermillonario a nuestra cuenta se siga manteniendo**

**Gizarte eredua eztabaidagai.** Etorkizun hurbilean izango dugun gizarte eredua eztabaida politikoaren erdian dago azken asteotan. Badira zuzenean eragingo diguten hainbat albiste garrantzitsu. Batetik, maiatzaren 3an Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak kupoari buruzko akordioa adostu zuten datozen bost urteetarako. Trukean Eusko Alderdi Jeltzaleak Alderdi Popularrak 2017rako Espainian aurkeztuko dituen aurrekontuak babestuko ditu. Soberan dago esatea zein aurrekontu mota aurkeztu duen Alderdi Popularrak...

Akordioaren inguruko azalpenik onena Eusko Jaurlaritzaren Pedro Aspiazu Ogasun kontseilariak eman zuen. "Datozen 15 urteetarako bake fiskala adostu dugu". Izugarria. Eusko Jaurlaritzak uko egiten dio hurrengo 15 urteetan Espainiar Estatutarekin konfrontatzeari, ez politikoki, ez ekonomikoki eta ez sozialki. Bi gobernuak –Euskal Autonomia Erkidegokoa eta Espainiar Estatukoa– ados daude egungo ereduarekin. Ados daude statu-quoarekin, eta ados daude orain arteko menpeko harremanarekin jarraitzeko.

**Fiskalitatearen inguruko eztabaida ere pil-pilean dago.** Aspaldi ari dira Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ogasunetako arduradunak zerga-erreforma berri baten inguruan eztabaidatzen. Hori bai, euren artean, isilean, eztabaida gizartera zabaldu gabe. Zenbait hedabidek aurreratu dutenez erreforma prest egongo da udazkenean. Erabakia hartua dute: egungo eredua aldatuko dute, bai, eta eredu berria are eta hobea izango da... kapitalarentzat eta enpresentzat. Kapitalak aspaldi erabaki zuen ez zuela zergarik ordaindu nahi, eta aitortu beharra dago helburua betetzen ari direla.

Patronala ere buru-belarri sartu da eztabaidara. Argi eta garbi hitz egiten dute, eta eskertzekoa da hori. Ez dira lotsatzen. "Aizue, hemen guk agintzen dugu eta zergarik ez dugula ordaindu nahi erabaki dugu. Hori langileek egin dezatela, nahikoa zortea dute-eta jaten ematen diegulako". Beste hitz batzuekin, baina hori esaten dute. Noski, zilegitasun osoa dute hori proposatzeko. Beste batzuk kontrakoa esateko dugun bezala. Hori bai, diferentzia begi-bistakoa da. ELAk zerga-eredua aldatu behar dela esaten duenean, gaiaren inguruan hitz egiteko zilegitasunik ez duela eta alderdi politiko bat sortu behar duela esaten diote. Patronalak bere jarrera azaltzen duenean, zilegitasuna aitortzeaz gain, inork ez dio esaten hauteskunde politikoetara aurkeztu beharra daukala bere helburuak lortu nahi badittu.

Ez da harritzekoa patronala hazita egotea. Klase politikoa bere esanetara dauka. Eskatu besterik ez du bere nahiak asetzeko. Maiatzean denboran gurutzatu ziren bi gertakarik primeran laburbiltzen dute afera. Bizkaiko Cebek patronalak bere Kongresua baliatu zuen oraindik eta zerga gutxiago ordaindu nahi dituela azaltzeko. Bitartean, Unai Rementeria –Bizkaiko Ahaldun Nagusia– Londresen izan zen, Brexit-a dela-eta herrialde hori utzi nahi duten horientzat Bizkaia paradisu-fiskal zoragarria dela azaltzeko.

**Osasuna aberatsen esku?** Apirilaren 25ean Eusko Jaurlaritzak akordioa sinatu zuen Amancio Ortega Fundazioarekin. Akordioaren ondorioz Inditex enpresako buruak sortutako fundazioak 14,7 milioi euro emango dizkio EAEko osasun sistema publikoari, minbizia tratatzeko tresneria berria eros dezan. Albiste honen atzean dagoena oso larria da. Ekimen honek uko egiten dio gizarte bidezko bat sortzeko ahaleginari, eta osasuna bezalako gai funtsezko bat aberatsen borondatearen arabera uzten du. Aurki osasuna ez da eskubide unibertsal bat izango, modu ilunean dirua egin eta bere burua zuritu nahi duena aberats baten borondatearen arabera egongo den gauza bat baizik.

Warren Buffetten –munduko pertsonarik aberatsenetakoa ere– esaldi batek sona handia hartu du. "Bai, klaseen arteko gerra bat bizi dugu, eta gurea –aberatsena– irabazten ari da". Badirudi Buffettensendian argi hitz egiten dutela. Bere seme Peterrek ere aho-bizarrik gabe hitz egiten du. Ortega Fundazioarena bezalako ekimenak "kolonialismo filantropikoa" bezala definitzen ditu, eta zergatia primeran azaltzen du: sistema bidegabe honek Ortega bezalako aberatsak sortu ditu, milioika pobre sortzearen lepotik. Beraz, Ortegaren lehen helburua sistema bidegabe hau bere horretan mantentzea da. *Pobre* horiek altxatuko balira eta sistema suntsituko balute, agur esan beharko lioke bere aberats egoerari. Horregatik aldiro-aldiro diru-kopuru bat (berarentzat huskeria) bideratzen du *pobre* horiek  konformatu daitezen eta egungo sistema auzitan jarri ez dezaten. Ortegarena ez da bihotz ona, kolonialismo filantropikoa baizik.

**Kapitalismoa eta Banka garaile Frantzian.** Posez txoratzen daude finantzak, kapitala, dirua eta banka Frantzian hauteskunde presidentzialetan izandako emaitzekin. Euren hautagaiak irabazi du, Martxan alderdiko Emmanuel Macronek. Baina gaizki egingo lukete Macron bultzatu duten horiek emaitza hauen irakurketa txarra egingo balute. Izan ere Macronek Europak egun bizi duen ataka larrira eraman duen guzti hori laburbiltzen du. Oraingoan jokaldia ondo atera zaie laborategiko produktu hau –Martxan alderdia eta Emmanuel Macron bera– sortu dutenei. Baina adi egon beharko lukete. Macronek orain arteko politikei eusten badie ez litzateke arritzekoa izango 2022an Marinne Le Pen izatea irabazlea.

Hauteskunde hauen emaitzen azterketa lasaia egin beharra dago. Bigarren Mundu Gerratik lehenengoz Frantzian hegemonikoak ziren bi alderdi tradizionalak –Errepublikarrak eta Alderdi Sozialista– bigarren itzulitik kanpo geratu dira. Jendearen haserrea nabarmena da; lehen itzulian egungo Europar Batasuneko eredua auzitan jartzen duten alderdiek gehiengoa lortu zuten bozetan. Front Nazional mugimendu ultra-eskuindarrak haserre horren zati handi bat bereganatu du. Marinne Le Penek primeran asmatu du bere burua globalizazioaren galtzaileen hautagai gisa aurkeztuz, eta langile-klasearen zati esanguratsu batek bere alde bozkatu du. Baina, agian ikasgairik garrantzitsuena zera da: ezinbestekoa da ezkerreko proposamen indartsu bat egotea kapitalismoari aurre egiteko eta langile-klasearen aldeko borroka ultra-eskuinak monopolizatu ez dezan. Frantzia Intsumisoa mugimenduak eta bere hautagai Jean-Luc Melenchonek ateratako emaitza onek hori frogatzen dute. Nahi adina ñabardura egin litezke, noski, baina mugimendu honek emaitza aipagarriak atera zituen lehen itzulian –7.059.951 botu, %19,58a–.

**"Frantziako Alderdi Sozialista hilda dago".** Aurreko esaldia ez diot nik, alderdi horren agindupean Frantziako lehen ministro izandako Manuel Vallsek baizik. Adierazpen hauek PSk ateratako emaitza kaskarren inguruan –bozen %6,36– hausnartzen ari zela egin zituen. 'Hilda dago' baino 'hil dugu' esan beharko luke, baina tira. Esaldi hau Europan Bigarren Mundu Gerraren ostetik nagusi izan diren alderdi sozialdemokrata (ia) guztiei aplikatu dakioke. Salbuespenak salbuespen, alderdi hauek inoizko emaitzarik txarrenetan daude. Sozialdemokraziak bere jatorrizko printzipioei uko egin eta kapitalismoaren morroi sutsu bihurtu zenetik gainbehera geldiezina da.

**Espainiar Estatuan ere begi-bistakoa da PSOE alderdiaren gainbehera.** Maiatzaren 21ean alderdiko afiliatuek idazkari nagusi berria aukeratu zuten, Pedro Sánchez, baina emaitzatik harantzago prozesuak agerian utzi du alderdi horren nora-eza eta hondamendia.

**Manuel Valls, primer ministro de Francia con el Partido Socialista, ha afirmado que el partido "está muerto"**

# “Nadie de fuera del sindicato nos va a decir lo que tenemos que hacer”

## MÁS DE 12.000 MILITANTES PARTICIPARON EN LOS ACTOS CONVOCADOS POR ELA EN BILBAO E IRUÑEA CON MOTIVO DEL PRIMERO DE MAYO

**› ERREDAKZIOA**

**Miles de personas –más de 12.000– participaron en los actos convocados por ELA en Bilbao e Iruñea con motivo del Primero de Mayo.** Gente que, con los pies en el suelo -en línea con el lema elegido para este año- reclamaron nuestro derecho a cambiar las cosas para conseguir una Euskal Herria más justa y solidaria.

Las trabajadoras de las Residencias de Bizkaia en huelga fueron las grandes protagonistas del acto organizado en Bilbao. Mujeres -la mayoría- que llevan más de un año desarrollando una lucha ejemplar en defensa de sus condiciones laborales y de unos servicios públicos de calidad.

Como viene siendo habitual, la jornada comenzó con el ya tradicional mitin, en el que tomaron la palabra Esther Saavedra, responsable de los servicios públicos en Bizkaia, Soraya García, responsable de ELA en las Residencias de Bizkaia, y Adolfo Muñoz Txiki, secretario general.

**Castigo de mujer**. Esther Saavedra comenzó su intervención relacionando la huelga del 1º de Mayo de 1886 con la que actualmente están desarrollando las trabajadoras de las Residencias de Bizkaia. “Aquella huelga, origen del Primero de Mayo, fue una lucha ejemplar para conseguir la jornada laboral de 8 horas al día. Ahora, en Bizkaia, miles de mujeres están llevando a cabo otra lucha ejemplar por sus derechos laborales y de vida. Ambos ejemplos nos demuestran que luchar merece la pena”, afirmó.

> **Bizkaiko zahar-egoitzetako gatazka konpondu ez bada, sektoreko langile gehien-gehienak emakumeak direlako da**

Esta responsable de los servicios públicos recalcó las claves de este conflicto laboral. “En primer lugar, hay que denunciar que si este conflicto no se resuelve es porque la inmensa mayoría de las trabajadoras del sector son mujeres. Además, este conflicto evidencia la apuesta por la privatización de los servicios públicos que han realizado nuestros responsables institucionales. Por eso, es imprescindible denunciar la actitud de la Diputación Foral de Bizkaia, que es la principal responsable de este conflicto y de su extensión en el tiempo”.

**Derecho a cambiar las cosas.** Por su parte, el secretario general de ELA, Adolfo Muñoz Txiki, defendió durante su intervención la autonomía del sindicato y nuestro derecho a cambiar las cosas. “Afirman que no nos corresponde el papel que desempeñamos en la sociedad. Se atreven a defender, incluso,





Esther Saavedra

que son ellos (los propios gobiernos) los que deben decidir qué puede decir y hacer un sindicato. Y, nosotros y nosotras, les decimos que no; que no le corresponde a nadie fuera del sindicato decidir, de manera directa o indirecta, lo que hacemos. ELA establece su propio pensamiento, sus propuestas en materia laboral, social y política con total autonomía. Lo ha hecho y lo va a seguir haciendo".




En otro momento, Muñoz adelantó que ELA va a redoblar sus esfuerzos para tratar de organizar a los y las trabajadoras vascas. "En ELA sabemos muy bien que en aquellos países donde el neoliberalismo ha logrado debilitar al movimiento sindical las desigualdades sociales aumentan y las condiciones de trabajo empeoran. Queremos ser útiles, queremos ser eficaces", aseguró.

## Politikan eragiteko eskubidea —eta eginbeharra— gurea da, sinesten dugunaren alde jardun behar dugu-eta

"Nuestro reto –añadió– es evitar que la alianza entre gobiernos y poder económico deteriore las identidades colectivas de clase. Lo vamos a seguir haciendo. Vamos a seguir defendiendo nuestro derecho –y obligación– de influir en la política para defender aquello en lo que creemos".

**Manifestación hasta la Diputación.** Después del acto realizado en la plaza del Sagrado Corazón, las miles de personas reunidas llevaron a cabo una colorida manifestación que concluyó frente a la Diputación Foral de Bizkaia, donde se realizó un emotivo homenaje a las trabajadoras de la Residencias, que recibieron el apoyo, solidaridad y reconocimiento del conjunto de la militancia de ELA. "Un auténtico subidón de autoestima y empoderamiento", tal como alguna afirmó.

**Comida con apuesta por la soberanía alimentaria.** A la dos del mediodía tuvo la ya tradicional comida de hermandad. Unas dos mil personas se dieron cita en una gigantesca carpa instalada en el Arenal bilbaíno donde degustaron un menú ecológico: patatas a la riojana, ternera y pastel vasco con queso. Todo ello regado con vino y sidra ecológicos. Se trataba de reponer fuerzas para continuar en la pelea, porque la lucha continúa...

## ELAk bere pentsamoldeak eta proposamenak hartzen ditu bere erabateko autonomiatik, lanaren, gizartearen eta politikaren arloetan. Horrela egin du orain arte, eta horrela jarraituko du egiten




SORAYA GARCÍA, ZAHAR-EGOITZETAKO LANGILEA

## "Isilik, esaneko eta makur nahi gaituzte, baina borroka hau irabaziko dugu"

"Gaur egin nahi dudan lehenengo gauza, nire lankide guztien izenean, eskerrak ematea da, gatazkaren 14 hiletan eta grebaren 150 egunetan jaso dugun sostenguagatik. Gaur hemen zaudetenok eta herri honetako milaka langilek, modu anonimoan, beren kuotez eta elkartasunaz, gure borrokari eusten lagundu diguzue.

Grebaren zergatiak askotarikoak dira: pertsonalaren eskandaluzko eskasia, erabateko prestasuneko lanaldiak, esplotazioko ordutegiak, aldi baterako kontratuak, 1.000 eurora iristen ez diren soldatak... Horixe da eguneroko egoera Bizkaiko egoitzetako 5.000tik gora langileentzat, pobrezia pertsonak zaintzearen truke.

Eta egoera hori Bizkaiko Foru Aldundiak ezkutatu nahi du. Jakinean eta nahita hartu dute erabaki politiko bat, zapalkuntzako lan-baldintzak betiko iraunarazteko, eta gizarteko pertsonarik ahulenei zerbitzu publiko kaskarra emateko. Eta dena helburu bakar bati begira: enpresa batzuen etekinak babestea, zeren enpresa horietako jabeak aldundian agintzen dutenen inguru politiko berekoak baitira.

Horretarako nahi gaituzue isilik eta esaneko. Emakumeak horrela izatea nahi dute: isilak eta esanekoak. Zeren ahoa irekiz gero, kontatu dezakegu 7 minutu dugula erabiltzaile bakoitza jasotzeko eta garbitzeko, 3 minutu pixoihala aldatzeko, 3 aldiz egunean gehienez. Isilak eta esanekoak, ez kontatzeko langile bakar bat dagoela gauez bi solairu zaintzeko, zaharrei entzuteko denborarik izan gabe.

Eta haiek idatzitako gidoitik atera garenez, orain makurtu nahi gaituzte. Dena da zilegi horretarako: egoitzetako erabiltzaileak gaizki tratatzea leporatu digute, beldurtu nahi gaituzte —langileak kaleratuz eta greba beste urtebetez luzatzeko mehatxatuz—. Baina txarrena zera da: bigarren mailako herritarrak bezala tratatzen gaituzte, menpekoak, manipulatzeko modukoak, ekimenik eta erabakitzeko gaitasunik gabeak. Begirunea galzen digute, eta hori emakumeak garelako, isilik geratzen ez diren emakumeak garelako, ematen diguten rola jokatzen ez dugulako, amore ematen ez dugulako, ez aldundiaren xantaiaren aurrean, ezta erakunde horren enpresa lagunen xantaiaren aurrean ere.

Gaur hemen argi eta garbi esaten dugu menpekotasunik ez dagoela, isiltasuna hautsi dugunok gero eta gehiago garela, kalera protestatzera ateratzen garenok ere gero eta gehiago. Eta azken mugaraino helduko gara, gure lan-baldintzak behingoz duintzea lortu arte, eta egoitzetako erabiltzaileen bizi-baldintzak hobetu arte. Ez gara geldituko helburu hori lortu arte.

# Maiatzaren lehena, iruditan









El 1º de Mayo es un día para visibilizar las peleas que el sindicato está manteniendo, empoderarse y demostrar que con organización y lucha todo es posible. Porque en el mundo que están construyendo, un sindicato realmente autónomo como el nuestro es imprescindible. GORA LANGILEON BORROKA!













# Más de 1.000 militantes de ELA reivindicaron en Iruñea su autonomía sindical y su derecho a cambiar las cosas

**ELA defendió el pasado primero de mayo en Pamplona** su autonomía sindical y su derecho a cambiar las cosas en una manifestación que reunió a más de 1.000 militantes del sindicato en Navarra. La manifestación partió de la plaza de la Cruz y terminó en la plaza Consistorial; una marcha que transcurrió con un inmejorable ambiente en el que cientos de personas trabajadoras difundieron sus reivindicaciones a lo largo del recorrido.

En el acto final, Mitxel Lakuntza, coordinador de ELA en Navarra, defendió la autonomía del sindicato: “La defensa de la clase trabajadora afecta, inevitablemente, a los espacios social, político y económico, y el sindicato debe actuar también en esos ámbitos”, afirmó, para subrayar, a continuación, que “vamos a seguir defendiendo nuestra autonomía con un doble objetivo: organizar a los trabajadores y trabajadoras desde abajo, desde cada centro de trabajo, para combatir los efectos de la mayor precariedad que nos han traído las reformas laborales; y reivindicar nuestro derecho a opinar y a influir en política para defender los derechos de la gente”.

En ese sentido, Lakuntza recordó la importancia de tener los pies en el suelo. “Estamos al lado de quienes sufren los recortes sociales y el empeoramiento de las condiciones laborales y salariales”. En otro momento de su intervención, el coordinador de ELA advirtió sobre el peligro de la continuidad de una estrategia patronal basada en extender la precariedad laboral. “No podemos decir que no estemos notando el crecimiento económico, notar lo notamos, ya que lo que sobre todo está llegando a la clase trabajadora son bajos salarios, flexibilidad e inestabilidad”.

**Defendiendo un verdadero cambio en Navarra.** En ese sentido, recordó al Gobierno de Navarra que la precariedad está también entre las plantillas de la función pública y los miles de subcontratados de la Administración. ELA insistió en que el “cambio” no puede dejar de lado el debate sobre la desigualdad y el reparto la riqueza, por ello reivindicó urgentemente “una reforma fiscal que saque a Navarra de la cola de los territorios de la UE donde menos pagan las empresas con beneficios”.

MItxel Lakuntza destacó durante su intervención que ELA llegaba a este Primero de Mayo con su mayor porcentaje histórico al haber superado el 23% de representación entre la clase trabajadora navarra (23,10%). “Este avance ratifica nuestra apuesta por un sindicalismo autónomo y reivindicativo basado en la cercanía y en la organización desde los centros de trabajo”, dijo.

La fiesta continuó en el frontón Labrit, en una comida popular en la que se reunieron en torno a 350 militantes de ELA, poniendo así el broche de oro a una inmejorable jornada
















## Mila militante baino gehiago bildu ziren Iruñean gauzak aldatzeko eskubidea badutela aldarrikatzeko

## Nafarroako aldaketak erreala, ausarta eta osoa izan behar du

INDARBERRITZEN

# Más autónomos que nunca

AMAIA MUÑOA, SECRETARIA GENERAL ADJUNTA Y TESORERA, DESVELA LOS GRANDES NÚMEROS DEL SINDICATO: ELA LLEGA AL XIV CONGRESO CON LA TASA DE AUTONOMÍA FINANCIERA MÁS ALTA DE SU HISTORIA -POR ENCIMA DEL 94%- Y CON RECORD DE REPRESENTATIVIDAD EN NAVARRA

› **N.I.**

**-Hablemos de los datos económicos del periodo 2012-2016. ¿Qué ha sido lo más destacable?**

-Lo más destacable es que las cuotas han seguido ganando peso –el 92,63% de los ingresos– y que nuestra autonomía financiera es ya del 94,40%. Eso supone una mejora de casi cuatro puntos respecto al anterior periodo congresual, lo que es un dato magnífico.

La autonomía financiera y política es central en el modelo sindical de ELA, así que estamos muy satisfechos. Esta consolidación de la autonomía del sindicato da una solidez enorme al proyecto, tanto en términos de desarrollo de la acción sindical como de la negociación colectiva.

Resaltar, también, que los datos económicos son auditados por una comisión de control nombrada cada 4 años.

**-Siguiendo con datos positivos que refuerzan la idea de la buena salud del sindicato. ELA llega a este Congreso con una subida de representatividad muy importante.**

-Así es. Llegamos al anterior congreso con una representatividad del 39,59% en la CAPV y del 21,26% en Navarra. Cutro años después estamos en el 40,35% y el 23,10%, respectivamente. En la CAPV estamos cerca de nuestro record histórico, pero en Navarra lo hemos superado ampliamente. Tanto es así que estamos a décimas del segundo sindicato en esta comunidad. UGT y CCOO ya no suponen la mayoría sindical en Navarra, una realidad impensable hace escasos años.

Y esa representatividad ha sido lograda en un contexto muy hostil para el sindicato y el modelo de sociedad que defiende. En este sentido, me gustaría destacar el enorme mérito de nuestros delegados y delegadas. Es fruto de su trabajo y buen hacer en las empresas.

**-Los datos de afiliación entre congresos no son tan positivos... pero con matices.**

-Ha habido una pérdida de afiliación, claramente motivada por la crisis y la destrucción de empleo. El matiz positivo es que esta tendencia revirtió en 2016, y llevamos todo el 2017 con netos de afiliación positivos. Es un dato que invita al optimismo y a seguir trabajando en la misma línea. Insisto en una idea que es una obsesión para ELA: la afiliación nos da autonomia.

No pueden acallar al sindicato porque no tenemos ataduras con nadie. Sólo nos debemos a nuestra gente. Y con la que esta cayendo, no queda otra que seguir aumentando nuestra base afiliativa. Nuestro futuro pasa por ser cada vez más, trabajando en una misma línea de justicia social y solidaridad.

Saber que nuestro proyecto depende exclusivamente de nosotros mismos, de la gente que componemos ELA, nos da una fuerza enorme.

**-Un dato positivo es la afiliación entre las mujeres trabajadoras.**

-Así es. En un contexto de pérdida de afiliación el neto de mujeres afiliadas en el cuatrienio es positivo. Nuestro sindicato es hoy más femenino que hace cuatro años, y eso debe servirnos para realizar esa mirada, esa reflexión y debate que estamos realizando en el sindicato en torno a la equidad.

**-La Caja de Resistencia ha estado muy presente en los conflictos que han tenido lugar en este cuatrienio.**

-Decir que apuestas por la negociación colectiva y no poner herramientas es pura demagogia, y más en los tiempos que corren. Uno de nuestros grandes hechos diferenciales es la Caja de Resistencia, que ha estado muy presente porque durante este cuatrienio han habido conflictos muy largos en el tiempo.

Miles de trabajadores/as han resistido y ganado gracias a la solidaridad del conjunto del sindicato: antes de 2012, los trabajadores/as de Laminaciones Arregui (que venía de 2011); ITV (que comenzó en 2012), Corrugados Azpeitia o Ekonor. En 20013, destacan por su duración los conflictos de las Residencias de Gipuzkoa, Feu Vert, gasolineras de Bizkaia, Bobinados Bidekoetxe o Perot. En 2014, UTE Miramón. En 2015, Arkema. En 2016, Eaton, Ingemar, Kaiku km0, TMB, o las Residencias de Bizkaia.

## ELAk bere ibilbide osoaren autofinantzaketaren tasarik handiena izango du, %94tik gorakoa



## Afiliazio-galeraren testuinguruan, lau urteko epean afiliatu diren emakumeen kopuru garbia positiboa izan da



**ALDEBAKARREKO BIDEA ETA SOZIALKI ALTERNATIBOA BURUJABETZA NAZIONALERAKO. ALIANTZA-POLITIKAK**

# “Burujabetzarako bidea prozesu sozial bat egitetik pasa behar da ezinbestean”



› NAGORE URIARTE

**-Aldebakarreko bidea defendatzen du ELAk, azkenaldian nagusi den albikotasunarekin kontraesanean...**

-Engainua da hitza. Jaurlaritzak eta berau sostengatzen duen EAJk aldebikotasunaz hitz egiten digute jakinda ez dela existitzen, Espainiako Estatuak ez duelako ematen halakorik egiteko bermerik.

**-Ordezkaritza politikoan zein gizartean demokraziaren kalitatea urritu dela dio ELAk ponentzian. Sindikatuan nolako eragina izan du inboluzio horrek?**

-Azken lau urteotan jazarpena etengabekoa izan da, baina badira azpimarrazekoak diren bi gertakari: alde batetik, iraileko dokumentua. Jaurlaritzak aurkeztutako dokumentu horretan patronalaren politikak bere egin zituen, alegia, patronalaren ildo politikora lerrokatu zen. Are gehiago, sindikatuok suposatzen dugun tresna kolektiboa ezerezean utzi nahi izan zuten.

Bestetik, uztailaren 22ko akordioa dago: Jaurlaritzak, patronalak, CCOOk eta UGTk eskuratutakoa. Ekuazioa sinplea da: gehiengo sindikalarekin adostasunik lortzeko gai ez zela ikusita, jazarpenaren eta presioaren bidea hartuta zuen, baina azken horrek ere fruituak eman ez zizkiola ikusita, zuzenean gutxiengo sindikala erabiltzea erabaki zuen gehiengoari bizkarra emanez.

**-Inboluzio demokratikoa etxetik urrun ikusteko joera dago gurean ere?**

-Euskal Herrian argi eta garbi ikusten da hori. Hau da, Europan hartzen diren erabaki asko antidemokratikoak direla agerikoa da denontzat, jendeak argi ikusten du; Espainiako Estatuari buruz ari bagara, zeresanik ez, irakurketa konpartitua da. Euskal Herriari buruz ari garenean, ordea, badirudi hauteskundeetan EAJ alderdi bozkatuena izan denez baduela dena egina, ez duela ezer konpartitu behar herritarrekin.

**-ELAk politikaz aritu nahi badu, alderdi politikoa sortu behar duela diote...**

-Urkulluren iritziz, instituzioetan daudenek bakarrik dute zilegitasuna politikan, eta hor bukatzen da parte-hartze demokratikoa. Hori ez da horrela. Instituzioak gizartearen parte dira eta gizarteak ez dira alderdi politikoetan bukatzen; gainontzeko eragileon papera zilegia da.

**-Aurrekoarekin lotuta, ELAk dio langile-klasearen patua lan-harremanen esparruan ez ezik, politikaren esparruan ere erabakitzen dela...**

-Langileen interesak negoziazio kolektiboaren bidez defendatzen dira bai, baina ezin daiteke ahaztu beste hainbat elementu politikorekin lotuta daudela, arlo sozialekoak eta nazio ikuspegikoak.

**-Urkulluk, ordea, kezkaz bizi du Kataluniako gizartearen parte-hartzea. “Kezkagarria iruditzen zait ardurarik ez duten gizarte-mugimenduek Katalunia baldintzatzea”, adierazi zuen...**

-Batzuek ez dute gizartearen inongo parte-hartzerik nahi, benetan ez dutelako inongo subirautza prozesurik nahi. Urkulluk argi utzi du erabakitzeko eskubidea gauzatzeko estatu mailako alderdi politiko baten onespena nahi duela, PP edo PSOE, Podemosek ez dio balio. Hortik aurrera, eliteen arteko prozesua izango litzateke eta behin adostasuna lortuta, orduan galdetuko litzaioke jendeari, hau da, bukaerara arte ez dute nahi gizartearen parte-hartzerik.

**“ELA tiene claro que las alianzas son imprescindibles; nuestro aliado referencial es LAB”**

**-Herritarrek eta gizarte eragileek burujabetzaren aldeko prozesuan izan behar duten tokiaz irakaspena eman ditu Ipar Euskal Herriak?**

-Irakaspen handia eman digu lan egiteko moduan: helburu bat dagoenean, erraza edo zaila bada ere, helburu horrekiko atxikimendua lantzeko kultura garatu dute. Atxikipen horretan, aniztasun politikoa egoteaz gain, gizarteko sektore oso ezberdinen ikuspuntua gehitzen jakin dute. Aurretik aipatu dugunaren ildotik, nork ordezkatzen du gizartea? Urkullurentzat alderdi politikoek soilik, Ipar Euskal Herrian, ordea, oso ikuspegi zabala dute.

ELAk dio aldarrikapen soziala eta gizarte-eredua burujabetzaren aldeko prozesua zatitu ordez, burujabetzak aurrera egiteko aukerarik onena dela.

Burujabetza prozesu sozial bat egitetik pasa behar da halabeharrez. Jendeak sentitu behar du aldaketarekin hobeto biziko dela, zentzu guztietan.

**-Iparralde izan dugu hizpide baina Nafarroan ere aldaketa handia gertatu da...**

-Nafarroan urte askoren ostean aro berri bat ireki da. Albiste ona da hori, aldaketa esanguratsuak egon baitira. Halere, aldaketa sozialik lortu nahi badugu askoz gauza gehiago mugitu beharko dira oraindik; gobernu aldaketak bakarrik ez du bermatuko bere horretan. Sindikatu eta organizazio sozial batzuekin batera gauzatu behar da aldaketa sozial hori. Mobilizazioek ez du aldaketa oztopatzen, lagundu baizik.

**-Nafarroan beste mugimendu batzuekin aritu da ELA. Orohar, aliantzak indartzeko helburua du sindikatuak ezta?**

-Bai. ELAk argi dauka aliantzak beharrezkoak direla: negoziazio kolektiborako, arlo sozialean eta burujabetza prozesuetarako indar handia behar da. LAB da aliatu erreferentziala; izan ere, neurri handi batean bat egiten dugu errealitatearen disgnostikoan, kontraboterean oinarritutako eredu sindikalean eta elkarrizketa sozialaren irakurketan. Halere, ezin aipatu gabe utzi Eskubide Sozialen Karta, elkarlanean ari gara ere.






DIRU-SARREREN %93 INGURU AFILIATUEN KUOTETATIK DATOZ

# Hipotekarik gabe

**Gardentasunaren eredu izan nahian, ELAk komunikabideetako profesionalak bildu zituen maiatzaren 9an Bilbon, bere afiliazio-datuak denen aurrean egiaztatzeko;** horrela sindikatuak argitaratzen duen informazioaren zehaztasuna eta egiazkotasuna ziurtatu ahal izan zen. Amaia Muñoak nabarmendu zuenez "afiliazioa sindikatuaren autonomia politikoaren bermea da" eta "kontraboterek o eredu sindikala indartzen du; horrela bakarrik jarri daitezke baliabide guztiak gizarte zuzenago baten zerbitzura, eta prekarietatearen aurkako ekintza sindikal baten zerbitzura". Alde horretatik, azpimarratu beharrekoa da kongresuen arteko aldi horretan afiliatuen kuotetatik datozen diru-sarrerak ugaldu direla berriro, %88,9tik %92,63ra igo baitira; eta horrek sindikatuaren autonomia finantzarioa eta politikoa finkatu ditu. Horrekin batera badago beste datu bat, giltzarri dena: ELAren finantza-baliabideen artean ez dago banka-mailegurik.

Azken lau urteotan, ekonomia-krisian murgildurik geundela, eta enplegua ugari-ugari galtzen zen bitartean, ELAk 105.312 afiliatu izatetik 98.960 izatera jaitsi da; hau da, 6.352 kuota-ordaintzaile galdu ditu (%6). Hala eta guztiz ere, azken seihilekoan joera argiro aldatu da, eta afiliazioa bide onetik sartu da, 867 langile gehiago afiliatu baitira. Gainera, badago beste datu bat oso positiboa: emakume afiliatuen kopuruak hazi dira, bai portzentajean (afiliazio-basearen %39,98tik %43,71era), bai guztizko kopuruan (1.155 emakume afiliatu gehiago).

Bestalde, benetako kobrantzaren portzentajea ere hobetu da, %97,98tik %98,31era igo baita.



# Ultimando los preparativos

**A falta de unas semanas para la celebración de su XIV Congreso confederal**, ELA ultima sus trabajos y preparativos. Ya han pasado en torno a 1.500 delegados y delegadas por los cursos de formación en torno a la ponencia, y está previsto que otros 1.000 lo hagan antes de la celebración del Congreso. Así mismo, tal como explica Miren Zubizarreta, presidenta de la comisión de enmiendas, tras el debate precongresual se han presentado 246 enmiendas al texto de la ponencia, de las cuales pasarán a la comisión de la ponencia 221; 18 han sido correcciones gramaticales y 6 han sido denegadas. Por lo que respecta a las Resoluciones, en el momento de cerrar esta edición de Landeia se había realizado tres y se ultima alguna otra.

Poco a poco también se va dilucidando la delegación internacional que acudirá al Congreso. Tal como explica Laura González de Txabarri, está confirmada la presencia de los sindicatos de naciones amigas como Palestina, Sahara, Escocia o Québec, así como las grandes confederaciones sindicales a nivel mundial -CSI-y europeo -CES-, además de decenas de representantes de sindicatos de todo el mundo. A ellos habrá que sumar una amplia representación de organizaciones e invitados de toda Euskal Herria.

Sin duda, nos esperan dos intensos días de trabajo -la puesta en escena de otros muchos- que culminarán con la aprobación de la ponencia y la elección del equipo encargado de gestionar que se lleve a cabo. **Indarberritzen.**

## PROPUESTA DE COMITÉ EJECUTIVO



*De izda a dcha, de arriba abajo:* **Eustakio Uranga, Peio Igeregi, Mitxel Lakuntza, Joseba Villarreal, Xabi Anza, Mikel Noval, Leire Txakartegi, Amaia Muñoa, Adolfo Muñoz *Txiki*, Laura Gonzalez de Txabarri, Amaia Aierbe e Iván Giménez.**

## REPENSAR LA ORGANIZACIÓN DESDE LA PERSPECTIVA DE GÉNERO

LEIRE TXAKARTEGI, RESPONSABLE DE POLÍTICAS DE GÉNERO

# "Tenemos que integrar la perspectiva de género en todos los ejes de trabajo de ELA"

**-La gran novedad de la ponencia es el apartado referido a la "necesidad de repensar la organización desde la perspectiva de género". ¿Qué significa esto?**

-Empezamos a hablar de la necesidad de abordar un proceso de cambio organizacional proequidad de género. Se trata de analizar y revisar toda la estrategia del sindicato para garantizar la equidad de género en todas las áreas: en los temas técnicos pero también en el campo político y cultural, cuestionando aquellos aspectos del funcionamiento de la organización que pueden estar generando exclusiones y desigualdades. Que las hay. Porque nuestra organización no es un oasis de igualdad, ni mucho menos.

Asumir este reto es una decisión política de enorme calado y creemos que hay que hacerlo ya, sin más demora.

**-¿Qué hay detrás de esta decisión?**

-Dos razones fundamentales: coherencia ideológica con el modelo de sociedad que defendemos, y buscar ser más eficaces en la defensa de los derechos de las mujeres.

El sindicato quiere ser un instrumento útil para la clase trabajadora, para el conjunto de la clase trabajadora, y no podemos obviar que las mujeres suponen ya la mitad de esa clase trabajadora, y no dejan de crecer en afiliación dentro del sindicato.

**-Las luchas sindicales más recientes y actuales, de hecho, tienen nombre de mujer.**

-ELA ha decidido que la lucha contra la precariedad va a ser una línea estratégica fundamental en los próximos años. Y precisamente son las mujeres las que sufren la precariedad, en mayor medida. Las mujeres, históricamente, siempre han estado en precario, laboral y socialmente.

Por eso la defensa de los derechos de las mujeres tenemos que colocarla como línea de trabajo de primer orden.

**-El reto es ir construyendo un sindicalismo feminista. Llegáis a afirmar que es cuestión de pura supervivencia del sindicato.**

-No nos podemos quedar atrás en la verdadera defensa de la igualdad. Estamos convencidas de que el modelo



sindical del futuro será feminista o no será. Porque un sindicato que no dé respuesta a las demandas y necesidades de la mitad de la población no tiene futuro. El futuro sindicalismo será feminista sí o sí.

**-El sindicato está compuesto por personas. Es evidente que el proceso de cambio haca la equidad de género es un proceso personal y colectivo.**

-Cada uno y una debe mirar en su interior, y desde ahí, como colectivo, debe ayudarnos a abrir nuestra mirada sindical. Una vez empezado el viaje no hay vuelta atrás.

Estoy convencida de que este proceso nos va a aportar mucho, a nivel político y organizativo. Todos y todas ganamos siendo partícipes de una organización más coherente, igualitaria y eficaz en la defensa de los derechos de las mujeres.

**-Una auténtica revolución. Los sindicatos, nos guste o no, son organizaciones básicamente masculinas y patriarcales...**

-Este proceso es muy ilusionante, "un regalo". Pero, al mismo tempo, somos conscientes de que no será facil ni cómodo, ya que supone cuestionarnos formas de hacer muy arraigadas.

## Genero- ikuspegia integratu behar du ELAren lan-ardatz guztietan

Pensamos que por ser una organización de izquierdas y progresista tenemos ya una estrategia feminista y estamos defendiendo la igualdad, pero no es así de simple.

Va a haber que poner encima de la mesa cómo estamos abordando la igualdad de género en la negociación colectiva, si estamos abordando la brecha salarial o nos quedamos en las medidas de conciliación, que no hacen sino perpetuar el modelo...

Va a haber que debatir sobre el modelo de militancia en ELA. Un modelo que da mucho valor a la implicación, medida sobre todo en términos de disponibilidad. ¿Qué podemos hacer para garantizar un modelo de militancia que garantice que las mujeres y los hombres puedan participar en condiciones de igualdad? ¿Qué estrategia debemos seguir para aumentar la participación de las mujeres delegadas?

Habrá que profundizar en cómo organizar la acción sindical para que las mujeres también se sientan cómodas y protagonistas. Las mujeres militantes nos están dando muchas lecciones con sus conflictos y huelgas, pero ¿estamos extrayendo aprendizaje colectivo o seguimos tomando los sectores industriales como patrón de nuestro modelo organizativo? ¿Estos conflictos están suponiendo procesos de empoderamiento de las propias mujeres trabajadoras? ¿Qué modelos de liderazgo estoy fomentando en el sindicato?...

Todo esto supone un cambio de chip; llevar la mirada de género a todos los ejes de trabajo.

**-El discurso es potentísimo. ¿Cómo va a empezar a convertirse en realidad?**

-La estructura del sindicato y todos los ámbitos y áreas deben hacer suyo el reto de la igualdad con objetivos y planes de trabajo. Este esfuerzo no resulta sostenible si no se hace con método: género y trabajo planificado deben ir -van a ir- de la mano en los próximos años.

De todas maneras, quiero recalcar que estamos en la fase inicial de este proceso: primero hay que entender y ampliar la mirada. Y eso será ya un paso enorme.

**PERTSONAK AHALDUNTZEA ETA ERAKUNDE SENDOTZEA**

# "Etorkizunean sindikalizatua egoteak bakarrik bermatuko du lan-baldintza duinak izatea"

## EUSTAKIO URANGA. ANTOLAKUNTZA



**› NAGORE URIARTE**

**Pertsonak ahalduntzea eta erakunde sendotzea izango dira datozen lau urteetako ELAren helburu nagusietako batzuk.** Horrek, ezinbestean, antolatzeko moduei erreparatzea eskatzen du. Atal horren arduradun Eustakio Urangarekin geratu gara erronka berrietara nola moldatu galdetzeko.

**-Antolakuntzari dagokionez zein da datozen lau urteetarako lehentasuna?**

-Ideia nagusia zera da: antolakuntza da gure sindikatuaren erronka nagusia, gure esku dagoena. Izan ere, antolaketa-ereduan asmatzeak bakarrik egingo gaitu eraginkorragoak geure helburuak defendatzeko.

**-ELAri kritika asko egiten zaizkio gobernutik, sindikalgintza bera krisian dela dioten ahotsak badira. Neoliberalismoaren mamua ote?**

-Oztopoak badira, noski, era guztietakoak gainera. Gure sindikalgintza-eredua, ordea, ez dago krisian. Gure afiliazio eta militantziak indarberritzen gaitu, alegia, posible den kasuetan negoziatzera bultzatzen gaitu, betiere konfrontaziorako gaitasunarekin, egoerak hala eskatzen duenean.

**El objetivo, a partir de ahora, seguirá siendo sindicalizar las empresas y los sectores**

**-Prekarietateak hankaz gora jarri du orain arte ezagutzen genuen negoziazio kolektiboa. Antolaketa-eredu berriak eskatzen ditu?**

-Lan-merkatuan txertatu duten prekarietateak behartzen gaitu ezinbestean gure antolakuntza errotik aldatzera, borroka berri horri modu eraginkorrean aurre egin ahal izateko. Garai zailak bizi ditugu: eskubide laboral eta sozialen kontrako erasoak etengabekoak dira, eta, noski, baita langileen eskubideak modu kolektiboan defendatzeko tresnen kontrako erasoak ere. Testuinguru horretan, ELAren kontrako jarrera gero eta bortitzagoa da. Izan ere, gobernuak markatutako ildoei men egin ordez, oztopo guztien gainetik negoziazio kolektiboari eustea lortu dugu, sasi elkarrizketa sozialari bizkarra eman diogu eta austeritatea tinko salatzen jarraitzen dugu. Guzti horren kontra egin nahi izan dute.

**-Prekarietatek badu beste zailtasun bat: anitza dela. Pobrea izateko modu asko dago... horrek zaila egiten du antolaketa eredu zehatz eta homogeneoa aplikatzea...**

-Egia da sindikatuaren lana konplexuagoa dela orain. Kontuan hartu behar da langileriaren segregazioa gero eta handiagoa dela (batzuek baldintza egonkorragoak dituzte, beste askok oso prekarioak, azpikontratazioa nagusi da...). Oso ezberdinak diren errealitateak bateratu behar ditugu, kasu askotan, interes kontrajarriak dituztenak ere. Halere, badugu nondik heldu: prekarietate eta azpikontratazio mapak abiapuntu garrantzitsuak dira, hortaz, bide horretatik jarraituko dugu.

**-Zeintzuk dira kongresu arteko ELAren erronkak?**

-Lantokiak eta sektoreak sindikalizatzea. Aurreko kongresuan esandakoa berretsi egiten dugu oraingoan ere, alegia, etorkizun hurbilean sindikalizatua egoteak bakarrik bermatuko duela lan-baldintza duinak izatea. Hori da hitzarmenak beteko direnaren ziurtasuna izateko modu bakarra, funtsean, eskubideak izateko berme bakarra. Sindikalizazioak langileen ahalduntzea dakar: euren helburuak eta estrategiak finkatzea, lan kolektiboa artikulatzea... Langileak ahalduntzeko ezinbestekoa da gure afiliatuekin, eta orohar, langileekin harremanetan jartzeko dugun modua berrikustea. Euren partaidetza erreala indartu behar dugu, euren proposamenak jaso, lehentasunak konpartitu eta estrategiak adostu.

**En el futuro, sólo estar sindicalizada o sindicalizado garantizará tener unas condiciones laborales dignas**

**-Genero-ekitate prozesu sakon batean murgilduta dago ELA eta horrek esparru guztiei eragingo die, muinean antolakuntzari, nola gauzatuko da?**

-Defendatzen dugun gizarte-ereduarekin koherenteak izan behar dugu: bizitza eredu sindikalaren erdian jarri nahi badugu, gure sindikatuak eta horren barne antolaketak genero-ekitatea bermatu behar du bere esparru eta eremu guztietan. Are gehiago, ezinbestekoa da hori langileriaren erdia diren emakumeen eskubideak defendatu nahi baditugu, batez ere, kontuan hartzen badudu eurak direla prekarietatea modu bortitzenean pairatzen dutenak. Lanaren antolaketa lehentasuna izango da hemendik aurrera guretzat.

Kongresu arteko datorren epean, zuzendaritzatik hasita, sindikatuko atal eta sail guztietara heldu arte. Zorroztasun handiagoz egin nahi dugu lan, hori baita modu bakarra genero inpaktuari erreparatzeko.

**-Militantzia handitzea eta indartzea da beste helburuetako bat?**

-Gure militantzia handitzea ezinbestekoa da mahai gainean ditugun eta etorkizunean izango ditugun erronkei aurre egiteko. Gure ardura da lan-zentroan edo lan-sektorean indar sindikala sortzea. Horrez gain, militantziaren prozesua definitu behar dugu; beharrezkoa da hori militanteek gure ekintza sindikal eta politiko osoa barne hartu dezaten. Horretarako, balioak konpartitu behar ditugu, jendea motibatu. Funtsean, ekintza sindikala eta mobilizazioa bultzatuko duten nukleoak sortu daitezen, baldintza egokiak sortu behar ditugu.

# Ebazpenak, ponentziaren osagarri

› GORKA QUEVEDO

**Ponentziaren onarpena Kongresuaren puntu garrantzitsuenetakoa da.** Hura da datozen lau urteetarako sindikatuaren jardunaren norabidea finkatzeaaren arduraduna. Baina, ponentziaz gain, Kongresuan parte hartuko duten ordezkariek Nazio Batzordeak proposatuko dituen ebazpenak ere bozkatu beharko dituzte, sindikatuarentzat estrategikoak diren gai ezberdinen inguruan ELAk duen jarrera azaltzen duten erresoluzioak. Hiru izango dira aurkeztu, eztabaidatu eta bozkatuko diren ebazpenak. Hala ere, ebazpenak azken unerarte aurkeztu daitezke; abaguneak hala eskatuko balu, posible da ebazpen berriak aurkeztea. Hauek dira Nazio Batzordeak proposatu dituen ebazpenen laburpenak.

## ALTERNATIBA SOZIAL ETA EKOLOGIKOETAN PARTE HARTZEKO KONPROMISOA HARTZEN DUGU

Kongresuak bere egiten du 'Sistema aldatu, ez klima' leloa. ELAk erabakitasunez erantzungo dio produkzio, banaketa eta kontsumo eredua eraldatzeko erronkari, betiere logika sozial eta ekologikotik abiatuta. ELAk arlo honetan organizazio aktiboa izan nahi du. Horretarako erabaki batzuk hartu ditu: argindarra Goienerrekin kontratatu du, eta Fiareko bazkide bihurtu da; baina asmoa da askoz aurrerago joatea. Nahi dugu gure militanteek eraldatze sozial eta ekologikoaren esperientzia horietan parte har dezaten.

Horregatik, 14. Kongresuak honakoa erabaki du:

- Gure militanteei eta langile-klase guztiari dei egitea eraldatze sozial eta ekologikoan aktibo izan daitezen.
- Kanpainak antolatzea gure militanteek urratsak egin ditzaten horrelako proiektuetan sartzeko: Goiener, Fiare, tokiko monetak, kontsumo taldeak, etab.
- Eskubide Sozialen Kartak norabide horretan egiten duen lanean inplikatu, hala kanpaina konkretuetan, nola beste prozesu batzuetan, esaterako 2018an Iruñean izango den Alternatiben Herrian.

## EUSKARAZ LAN EGITEKO ESKUBIDEAREN ALDE. ASIMILAZIO KULTURALAREN KONTRA

Euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza eta gure nazio izaeraren ezinbesteko osagaia da. Herri txiki bateko hizkuntza guxitua da gurea, munduan dauden beste hainbat hizkuntza bezala. Izan ere, kapitalismo neoliberalak homogeneizazio kulturala eragiten du eta ekonomikoki errentagarriak ez diren jarduerak, kultur-ekintzak eta hizkuntzak desarrarazi egiten ditu. Munduan zehar hizkuntzak desagertzen ari dira indartsuagoak diren hizkuntzen mesedetan, eremu bakoitzean botereak legitimatzen dituen hizkuntza nagusien mesedetan, alegia.

Gai honetan dugun erantzukizuna geurea egiten dugu eta hurrengo urteetarako ondorengo konpromisoak hartzen ditugu:

**Sindikatu barruan,**

*Euskararen normalizazioa ardatz garrantzitsu bat izan behar da. Gure diskurtsoan euskararen minorizazioari toki handiagoa egingo diogu, egiturazko arazo politiko bezala kokatuz.

*Barne normalizazioan aurrera egiteko urrats kualitatiboak emango ditugu. Ez da nahikoa euskararen aldeko neurri zehatz edo isolatuekin. Sindikatuaren plangintza estrategikoan eta lan prozesuetan euskararen normalizazioa txertatuko dugu, esparru eta egitura guztietan helburuak ezarriz eta jarraipena eginez.

*Ahalegin berezia egingo dugu sindikatu barruan sortzen ditugun lan material eta euskarriak euskaraz sortzeko.

**Lan harremanei dagokionez,**

*Lan munduan langileek euskaraz lan egiteko duten eskubidea defendatzen eragile aktiboak izango gara. Afiliatu eta ordezkari sindikalengandik hasita, sentsibilizazio eta motibazio lana egingo dugu.

*Euskara planak eta neurriak bultzatuko ditugu lantokietan, sektore pribatu zein publikoan.

*Euskararen normalizazioaren alde negoziazio kolektiboa eta ekintza sindikala indartuko ditugu, horretarako eduki eta neurri zehatzak aldarrikatuz.

## SINDIKALISMO EZ PATRIARKALAREN ALDE. INDARKERIA SEXISTARIK EZ

ELAk konpromisoa hartu zuen indarkeria sexistaren auzia sindikatu barnean agerrarazteko eta agenda konfederalean sartzeko. Honekin batera, sindikatuak bere borondate irmoa adierazi zuen gune eta egitura feministetan parte hartzeko. Ordutik hona emakumeek pairatzen duten bortizkeria sistemiko horren esanahia birformulatu eta hedatzera jo dugu.

ELAk orain artekoa baino gehiago egin nahi du bortizkeria matxistaren agerpen desberdinen aurkako borrokan, eta horregatik honako konpromisoak hartu ditu bere gain:

Sindikatuak hasi duen genero-ekitatearen aldeko antolakuntza-aldaketa prozesuaren baitan kultura ez matxista landuko dugu, honako urratsekin: emakumeak ahalduntzeko prozesuak, gizontasun berrien sustapena edota genero-rolen dekonstrukzioari buruzko sentsibilizazioa.

Prozedura eta estrategiak sortuko ditugu sexu-jazarpen eta sexuagatiko jazarpen egoerak identifikatu eta horiei erantzuteko, hala sindikatu barnean nola lantokietan.

Jarraipena emango diogu emakumeek pairatzen duten prekaritate laboral eta sozialaren aurkako borrokari, haien bizi-baldintzak duintzeko asmoz. Horretarako, sektore feminizatuak antolatzea gure estrategia sindikalean funtsezkoa izango da etorkizunean ere. Era berean, zaintzarako kalitatezko zerbitzu publikoen beharra aldarrikatzen jarraituko dugu, zaintza lanen erantzukidetasunean aurrera egiteko.

Eraso edo hilketa matxistak salatu eta sozializatzeko gure konpromiso publikoa berresten dugu, mugimendu feministak deitutako mobilizazioetan aktiboki parte hartuko dugularik, mugimendu berarekin sarean lan eginez.

# INDARBERRITZEN

› GORKA QUEVEDO




**1929. urteko urriak 12 eta 13. Eibarreko Astelena pilotalekua. ELAren lehen Kongresua.** Aldarrikapen dinamikak indarra hartu zuen eta kongresuak bi urterik behin ospatzeko erabakia hartu zen. Hala ere, elkarte eta federazio ezberdinak Konfederazio baten inguruan biltzeko beharra bete gabe geratu zen. Bigarren Kongresua Gasteizen egin zuen ELAk, 1933. urtean. Erakundea zabala zen eta ekinbide ezberdinak zituen, ez beti arlo sindikalari loturikoak: kooperatibak, mutualitateak, sorospen-lanak... Kongresu hartan enplegatuen federazioa integratu zen, izen aldaketa eraginez; aurrerantzean STV (Solidaridad de Trabajadores Vascos) izango zen izen berria.

1936ko altxamendu faxistak eta honek eragindako gerra zibilak sindikatuen legez kanporatzea ekarri zuen. Gauzak honela, lau hamarkada baina gehiago itxaron behar izan zituen ELAk Kongresu berri bat egin arte. 1977. urtean izan zen eta bi zatitan banatuta ospatu zen. ELAren birsortzearen kongresua izan zen; ELA berriz ere jaio egin zen. Edozein alderdirekiko independentziaren aldarrikapena eta bere izaera konfederalaren berrespena izan ziren alderdirik azpimarragarrienak. Kongresu honetan, gainera, karguen bateraezintasuna, kuoten bidezko finantziazio autonomoa eta erresistentzia-kutxa bezalako ezaugarriak finkatu ziren.

**Birsortze Kongresu honetatik aurrera ELAk beste hamar Kongresu egin ditu.** Hurrengoa ate-joka dugu: ekainaren 15 eta 16an dugu hitzordua Bilboko Euskalduna Jauregian. Indarberritzeko kongresua izango da. Indarberritzea, hori baitu helburu kongresuak. Begi-bistakoa da langile-klaseak garai gogorrak bizi dituela. Gauza jakina da hori. Euskal Herri aske eta bidezkoago baten aldeko borrokan arerio gogorrak ditu sindikatuak.

Lan eskerga egin beharra dago helburu horien egikaritzan. Lan gogorra. Nekeza. Batzuetan poz eta alaitasun uneak dira nagusi. Beste batzuetan, zergatik ukatu, tristura eta etsipena. Baina beti harrotasuna, langile-klasearen eta mundu bidezkoago baten alde borrokatzeak dakarren harrotasuna. Kongresuak sindikatua borroka horiei aurre egiteko indarberritzea du helburu. ELAko militanteak motibatzeko balio behar du, datozen lau urteetan aurrez aurre izango ditugun erronkei indarberrituta aurre egiteko abiapuntua.

**Bai, erronka ugari ditu ELAk datozen urteei begira.** Orain ildo estrategiko horiek eztabaidatzeko ordua da. Hausnartzeko garaia. Azken urteetan ondo egindakoaz ikasteko eta gaizki egindakoa zuzentzeko. Sindikatua batu eta etorkizunari begira jartzeko. Helburu guzti hauek lortzeko beharrezkoa den indarra hartzeko egunak. Azken finean, ELA eta bere militantzia osoa indarberritzeko garaia.

FRANQUEO CONCERTADO
NO 08/129